

DINOSAUROAK (Kantu Kolore)




Dinosauroak era Mesozoikoa
elkarrekin bizi ziren,
kontinenteak orobat
den-denak batera ziren (bis).

KOROA:

**Belarjaleek belarra jaten zuten,
haragijaleak haragiz elikatzen ziren.**
Kume txikiak arrautzatik jaiotzean,
bizi berri bat, mundu berri bat.


Tyrannosaurus rex, Diplodocus,
Triceratops, Stegosaurus,
Velociraptor, Spinosaurus,
Apatosaurus (bis).

**Oso bizkorrak, arinak, biziak,
lepo luze, lar (oso) altuak,
buztan luzeak... gainera,
beldurtzeko hortz zorrotzak (bis).**



KOROA


Dinosauroak Lur planetan
luzaro bizi izan ziren,
meteorito batek lurra jota
iraungi (hil) ziren betiko (bis)



Zer jaten dute? (Lotu bakoitza dagokion marrazkiarekin)



Haragijaleak



Belarjaleak



Orojaleak

Nolakoak ziren? (Aukeratu dinosauroak deskribatzeko erabiltzen diren hitzak)

Oso bizkorrak

Txikiak

Lumaz estalita

Arinak

Oso altuak

Ilez estalita

Oso argalak

Lepo luzea

Buztan luzea